

## PRENTSA-OHARRA

# Quantic-ek erritmo tropikalez beteriko kontzertua emanen du Compañía plazan, sanferminetan, Europan barna egiten ari den biran barna

Radio 3ko kolaboratzaile Jesus Bombín DJak musika-saio bat emanen du 20:00etan

Europan barna egiten ari den biran, estatuan Madrilen eta Iruñean bakarrik geratuko da Quantic. Izen horren atzean Will Holland ekoizle britaniarra dago, haren bandak lagunduta sanferminetara iritsiko zaiguna erritmo tropikal markatuzko kontzertua eskaintzeko prest. Emanaldia, ohi bezala, 23:45ean hasiko da, Compañía plazan.

Quantic bera, bere bizitza eta musika esaldi bakar batean laburbildu daitezke: “ospe handiko funk eta soul ekoizle britaniarrak bidaia egin du Kolonbiara, bertan geratzea erabaki eta cumbia hankaz-goratu du”. Hori izan liteke Will Holland ekoizle, musikari eta DJ polifazetikoaren ibilbidea. Hamarkada honetan hamar bat album kaleratu ditu, edo hogeit bat, aintzat hartzen baditugu Ondatrópica eta Los Míticos del Ritmo taldeekin egindako lanak, edo bere bilduma hautatuak.

Sanferminetan Nidia Góngora ‘Curao’ abeslariarekin batera aurkeztuko du bere azken lana, *Cumbia sobre el Mar*, eta arrainak airean nola, halaxe sentiaraziko ditu ikusleak. Ekoizpen musikal abenturazaleak eta askotariko soinuak dantzaleku moderno baten estetikarekin uztartzeko trebetasuna, horra Holland ezagutzera eman duten bereizgarriak. Orain, giblean hamasei album eta bilduma batzuk dituen honetan, eta Ana Tijoux, Jorge Drexler, Alice Russell, Spanky Wilson, Shinehead, Anibal Velasquez, U-Roy eta beste askorekin elkarlanean aritu eta gero, proiektu horien guztien errepassoa eginen du, betiere dantzalekua jomugatik galdu gabe, eta hura beste maila batera eramanez. Labur esanda, erritmo tropikalez, baxu-lerro indartsuez eta inspiratzen duen musikaz beteriko gau-emanaldia ekarriko digu.

Lehenago, 20:00etan, musika-saio bat izanen da Jesús Bombín DJaren eskutik. Radio 3ko *Sonideros* eta *Hoy empieza todo* irratsaioetan kolaboratzailea da, eta 60ko hamarkadako musika italiar, frantziar eta espainiarrari buruzko magazina estreinatu berri du Madrilgo Udaleko m21radio.es-en. Bombínek bi hamarkada eman ditu Madrilgo hainbat klubetako kabinetan, eta maleta eklektikoarekin ekitaldi hauetan ibili da, besteak beste: Donostiako Jazzaldia,

1. orrialdea, (e)tik 2



Antzerkiaren Max Sariak, Musika Independentearen Sariak, Casa de América, Nazioarteko Unibertsitatea, La Mar de Músicas jaialdia, Helsinkiko Elefant Funk jaialdia eta Erroma zein Milango Micca Club.

**COMPAÑÍA PLAZA. JAZZFERMIN ETA MUNDUKO MUSIKAK. UZTAILAK 6 – 13**

	<b>Arratsalde (20:00)</b>	<b>Gau (23:45)</b>
<b>MUNDUKO MUSIKAK</b>		
<b>Uztailak 12</b>	Jesús Bombín DJ	QUANTIC LIVE (KANADA)
<b>Uztailak 13</b>	REVOLUTIONARY BROTHERS LIVE	Soleá Morente

Iruñean, 2018ko uztailaren 11n